

BALIABIDEAK

Gure enpresaren baliabide fisikoak gutxi izango lirateke, izan ere, gure produktuak material gutxi behar du eraikia izateko. Hasteko, beste enpresa batekin harremanetan jarri ondoren, metalezko diseinu berezidun tutu batzuk erosi beharko genituzke. Hurrengo baliabide garrantzitsuak sentsoreak eta prozesadoreak dira, hauek teknologia banaketa-enpresa bati erosiko genizkieke. Azkenik, auto edo antzeko baten beharra izango genuke gure produktuak dendetara irits daitezen baina hau gure auto pertsonalarekin egingo genuke, hau da, enpresa auto berririk erosi gabe. Baliabide intelektualak ere nahiko xumeak izango lirateke, gure produktuaren patentea eta gutxi gehiago.

Giza baliabideak, berriro, gutxi izango lirateke, gure produktua saldu nahi duten ortopedietako langileak eta gure taldea izango ginateke.

Baliabide guzti hauek, noski, gure enpresa handitzen doan heinean handitzen joango lirateke eta gure hasierako etekinen zatirik handiena enpresan inbertituko genuke, enpresa handituz eta baliabide gehiago izanik.